

BALOREZKO PROPOSAMENA

Pertsona helduek erabiltzen dituzten motoetan hobekuntza bat proposatzeko gaude. Gure hobekuntza honakoa da: motoetako gurpiletan sentsore infragorriak jartzea motorra espaloitikan erori ez dadin. Hobekuntza honekin hainbat istripu ekidin ahalko lirateke eta horrelako ibilgailuak erabiltzea seguruagoa izango litzateke.

Gure produktua erosiz gero bezeroek istripuak izateko arriskua murriztuko dute. Gainera, ibilgailua lasaitasun handiagoarekin erabili dezakete: produktua gehien bat zaharrei zuzenduta dago eta askok ikusteko arazoak izaten dituzte; baina asmakuntza horrekin ez dira horren adi egon beharko ea eroriko diren. Eta honetarako honako balioak izango litzuzke:

Nobedadea da, gure inguruan ez baita horrelako produkturik aurkitzen. Egia da, motorrentzako gehigarri mordoa saltzen direla, baina horrelako ezer ez dago merkatuan salgai.

Pertsonalizazioari dagokionez, gure produktua hainbat koloretan ekoizteko aukera dago, adibidez eroslearen helburua zilindroa ahalik eta gehien disimulatzea bada, kolore diskretuetan ekoiztu ahalko genuke (beltzean, grisean...). Aitzitik, helburutzat badute gure produktua beraien motorrarekin konbinatzea, motorrak gehien ekoizten diren koloretan sortuko genituzke zilindroak (granateak, urdinak...).

Ezgaitasun desberdinak dituzten hirugarren adineko "motorrean" ibiltzen diren pertsonen segurtasun arazorik eduki gabe kaletik ibiltzea **erraztuko** liokete.

Disenua erraza eta sinplea izango da helduentzako baita eta horrela erraza izango da beraiantzako. Gainera, diseinu desberdinak egongo dira gurpilaren diametro mota bakoitzarentzako.

Balio kuantitatiboari dagokionez, **prezioa** ez da oso merkea izango, baina mereziko du. Azken finean, nahiz eta hasieran inbertsio bat izango den luzera mereziko du, izan ere, motorrak erortzea saiestuko du. Ondorioz, motorra puskatzea edo gidariak arazo medikoak izatea ekidingo du eta amaieran dirua aurrezten egongo zara.

Gure produktua ortopedia denda guztietan egongo da **eskuragarri** baita gure online dendan ere. Gainera, zahar etxetatik pasako gara gure produktua aurkeztu eta eskaintzeko.